



**Prensa oharra**

### **2020-2021 urteko Merkataritza Sari hirukoitza**

## **KONTSUMITZAILEEK EROSKI AUKERATU DUTE ON LINE SUPERMERTATURIK ONENA LAUGARREN URTEZ JARRAIAN**

- **On line** negozioak laukoiztu egin du bere gaitasuna urteko lehen zatian, eta bikoiztu egin du bere salmenten karga; orain, bolumen guztiaren %4 da
- Kontsumitzaileak dira lehiaketa honetako epaileak
- **Retailaren** sektorean egiten den merkatu azterketarik handienetako bat da
- **Urteko Merkataritza Onenaren Saria** ere jaso du EROSKI, **Hurbileko Supermerkatuen** eta **Frankizien** kategorietan

Elorrio, 2020ko urriaren 1a.- [EROSKI](#) laugarrenez irabazi du 'Urteko Webshop'-aren saria on line supermerkatuen kategorian, 2020-2021 [Urteko Merkataritza Sarien](#) hamargarren ekitaldian. Kontsumitzaileek on line bozkatuta eman dute saria; horretarako, supermerkatuen gogobetetze maila neurtu dute, eta balorazio orokor bat egin dute. Espainian dagoen kontsumitzaile lehiaketarik handiena da, eta **Retailaren** saileko merkatu azterketarik handienetako bat. Bozketan, honelako aldaerak baloratu dituzte kontsumitzaileek: kalitate-prezio erlazioa, produktu sortaren ugaritasuna, bezeroarenganako zerbitzua, eskariak eramateko zerbitzua, promozioak eta eskaintzak, ordaintzeko erak eta erabiltzailearen esperientzia.

Gaur egungo kontsumitzaileek eskatzen duten horretara egokitua dago EROSKIren on line negozio eredua. Interneten duen supermerkatuak 15.000 elikagairen eta freskoren erreferentziak ditu, eta eskaintza komertzialik handiena egiten du, dendetako prezio eta promozio bereberekin, gainera. Horrela, kanal guztietan bermatua gelditzen da erosketa uniformearen esperientzia. Eredu hori indartu egin da COVID-19ak eragindako osasun krisia dela medio. *"Merkataritza elektronikoaren ohiko mugak, hau da, sarbide elektronikoa, freskoak eta ordaintzeko erak gairatu egin dira konfinamendu garaian. EROSKI laukoiztu egin dugu gure gaitasuna, on line salmentari aktibo eutsita konfinamenduaren aldi*

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboa  
Kristian Prieto

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

#### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



osoan. On line erosketak ustekabeko zenbatekoak eman ditu; aste batzuetan, urteetan zain egon den hazkundera egin du, eta, bezeroak kanalaren abantailak probatu dituenen, errepikatu egin du. Konfinamenduan EROSKIren on line supermerkatua hautatu duten ia bezero berrien erdiak gurekin gelditu dira. Baita alarmerik egon ez denenean ere, hau da, mugikortasunaren murrizketarik egon ez denean. On lineren pisua bikoiztu egin dugu taldearen salmenta guztiak aintzat hartzen baditugu, eta %4raino iritsi da", azaldu du EROSKIren On-line Negozioaren zuzendariak.

### **Liderra on line arloan EAEn**

EROSKI indartu egin du bere lidergoa EAeko on line merkaturan urteko lehen zati honetan, eta merkatu kuotaren %58tik gora ibili da ekainean. "Errealitate berri honek modua eman digu merkaturan dugun lekua finkatzeko; EAEn on line erosten den janariaren 2 eurotik 1 EROSKI hartzen du", esan du Mari Mar Escrigek.

### **Saria halaber Hurbileko Supermerkatuen eta Frankiziaren kategorietan**

EROSKI hautatu dute kontsumitzaileek ere 2020-2021 Urteko Merkataritza Sarietako 'Hurbileko Supermerkatuen' eta 'Frankizien' kategorietan. Sari horrek aitortza egiten dio Zurekin eredu komertzialaren ardatz nagusiei, zeinak EROSKIren belaunaldi berriko denden ezaugarri baitira. Eredu horrek berezitasun hauek ditu: elikagai freskoetan espezialista den gama bat du, tokian tokiko produktuak ditu, eguneroko erosketan dirua aurrezten laguntzen du EROSKI Clubekin, gama zabala du ekoizleen markak marka propioarekin konbinatzen baititu eta haren jarduera ekojasangarria da ingurumenean bere jarduerak duen inpaktua gutxitzeko berrikuntza teknologikoak baitarabiltza.

"Sari hirukoitz honek berretsi egiten du kontsumitzaileek estimutan dutela bere osoan guztitarako kanalekin egiten dugun proposamena; izan ere, EROSKIren Zurekin ereduarekin eta kanal eta formatu guztiekin gaur egun dituen premiak estaltzeko modua ikusten baitu", azaldu du Mari Mar Escrigek.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboa  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)